

# EZER EZ, ETA FESTA

Martzelino Soroak idatzitako antzerkia.  
Jatorrizkoa galdurik, Toribio Alzagak berregin zuen  
Soroaren nota-oharretatik abiatuta.

Euskal Esnalea aldizkariko  
1922ko ilbeltzeko alean  
argitaratua.

Donostia

2003ko martxoan Euskararen Donostia Patronatuak  
eguneratu eta apailatua

© euskaraz.net 2003

## HIZTEGIA

Alpraketa: espartina

Herri!: herrikide! adiskide!

Txeletaka: berriketan, kontu-kontari

Sendakin: sendagile, mediku

Potixa: poto

Txirri-mirriak: trasteak, izenik ez dakigun zerak

Pipen txortena jo: pipa jo, harpa jo, adarra jo

Karranpa: zaintiratu

# EZER EZ, ETA FESTA

## IRUDIGILEAK:

Kaximira.  
Anttoni.  
Batixta.  
Xoluerdi.  
Juxto.  
Martzelo jauna.

## I

Antoxin, potto, kriseilu egiteko lantegi edo denda azalduko da. Atzean, kaletik sarrerako atea. Ezkerretara, lanerako mahaia, lan-tresnaz betea, eta alderdi guzietan antixun, potto, kriseilu, argi-ontzi eta abar zintzilik. Eskuinean, aulki batzuk.

Batixta ari da antoxin bat antolatzen eta garai berean abesten, noizean behin mailuarekin danbateko batzuk emanaz. Xoluerdik abesten laguntzen dio, baina oso barregarri.

## BATIXTA eta XOLUERDI

BATIXTA                      Festarik behar bada - bego Donostia...

XOLUERDI                    Bai, bai-bai.

BATIXTA                    Betikoa du fama - ondo merezia...

XOLUERDI                    Bai, bai-bai.

## BATIXTA

Bestetan ez bezala  
hemen gazteria  
amaren sabeletik  
dator ikasia.

## XOLUERDI

Txin tata txinta, txinta  
Pru-pru, pru-pru  
Reeeee..... txin-ta  
Txin, tata, txin-ta txin  
Bum!

- XOLUERDI E? Ez zegok gu bezalako abeslaririk mutuen etxean ere.
- BATIXTA Bai; eta halere, beti Xoluerdi.
- XOLUERDI Egia diok, to; beti zapata zaharrak konpontzen.
- BATIXTA Zapata zaharrak ez direnak ere ekartzen ditiztek hiri.
- XOLUERDI Bai, berri-berriak ekartzen zizkidek; behin ere ibili gabeak.
- BATIXTA Ez zekiat ibili gabeak ekartzen dizkiaten, baina konpontzera ekarritako zapata asko herorrek ibiltzen dituala, bai, hori bazekiat.
- XOLUERDI Zuzentzeagatik.
- BATIXTA Bai bada.
- XOLUERDI Badakik; oker-okerrak ekartzen zizkidek, eta nire oinetan zuzentzen ditiat. Ez diat oraindik ormarik aurkitu nire oinak bezalakorik.
- BATIXTA Ezta ere oinetarako, besteren zapatak bezalakorik.
- XOLUERDI Balitekek.
- BATIXTA Merkeagorik ez behintzat.
- XOLUERDI Usteko duk musu-truk zapatak konpontzen direla...
- BATIXTA Hik ez behintzat.
- XOLUERDI Ezta inork ere.
- BATIXTA Hago isilik. Lehengoan ere ederra egin hion Matteo Baxkalondoren alabari: zapatak konpontzeko ekarri, larrua erosteko dirua behar huela esanaz, sei erreal handi atera...
- XOLUERDI Handiak, bai: mutur batetik besterainokoak.
- BATIXTA Eta azkenean, sei errealak hor nonbait urtu...
- XOLUERDI Hor nonbait, ez...

- BATIXTA                    Eta neska gaixoa, ez diru eta ez zapata utzi.
- XOLUERDI                 Hor nonbait ez; zuekin xaltxa bat egin behar genuela joanda. Azkeneko zibota adinakoak han utzi behar izan nitian.
- BATIXTA                    Xoluerdi; hirekin ez zegok gauza onik.
- XOLUERDI                 Zuen tartean sartuz gero ez behintzat. (*Kaximira atzean azaltzen da*)
- BATIXTA                    Jaxinta Mokoren alaba zetorrek.
- XOLUERDI                 Jaxinta Mokoren alaba? Beleak ditiagu. (*Kaximira sartzen da*)

## II

### LEHENGOAK ETA KAXIMIRA

Xoluerdi gelditzen da burua ezin gordeaz. Batixtak ekiten dio lanari, abestuz.

- BATIXTA                    Festarik behar bada - bego Donostia...
- KAXIMIRA                 (*Kaleko atetik kopeta ilunarekin sartuaz*) Egun on.
- BATIXTA                    Ongi etorri, panpoxa, arrosaren krabelinik zoragarriena. Zer behar duzu? Argi-ontxi, antoxin, pottoren bat?
- KAXIMIRA                 Ez; behin ere bere lantokian ez dagoen baten bila etorri naiz.
- XOLUERDI                 Niregatik ari al zara?
- KAXIMIRA                 Noski.
- XOLUERDI                 Jakin ezazu bada, orain sartzea egin dudala hemen; eta ez zait iruditzen lanari asko uztea dela hemen sartu-atera bat egitea.
- KAXIMIRA                 Bai; lantokian zaudenean ere, lanari baino atze-aurrera doazenei gehiago begiratzen diezu zuk.
- XOLUERDI                 Adi ezazu: nik hori egiten badut, etxejabeak zein sartu eta zein ateratzen den begiratzeko agindu didalako da.

- KAXIMIRA           Gonaduna bada behintzat ez duzu inoren agindurik behar; berari begira lerdea darizula egoteko.
- XOLUERDI           Noski! Jaxinta Mokoren alaba edo... *(Batixtak Jaxinta Moko entzuten duenean mailuarekin soinu handia ateratzen du, Kaximirak entzun ez dezan)*
- KAXIMIRA           Adi ezazu: politikxo hitz horiekin, nire amak ez du horrelako izenik; nire ama, andre Jaxinta deitzen da.
- XOLUERDI           Ni ere ez naiz Xoluerdi deitzen baina...
- KAXIMIRA           Beste batean kontuz ibiliko zara bada, nire aurrean horrelakorik aitatu gabe, alproja txarra, ez besterena.
- XOLUERDI           Hori ere aditu behar.
- KAXIMIRA           Orain, beste gauza bat.
- XOLUERDI           Lehengoa baino hobea izango ahal da.
- KAXIMIRA           Ez dakit; zuk igarriko diozu.
- XOLUERDI           Ea bada.
- KAXIMIRA           Guri usoa falta zaigu.
- XOLUERDI           Eta, zer nahi duzu? Larruzkoa egitea? Hara, Batixtak egin liezazuke polit bat.
- BATIXTA           Bera bezain polita ez baina...
- KAXIMIRA           Berriketa gutxi; guri usoa falta zaigu, eta zure usategian, zure ganbaran edukiko duzu.
- XOLUERDI           Zer eduki behar dut!
- KAXIMIRA           Alferrik ukatuko didazu.
- XOLUERDI           Ez dela egia.
- KAXIMIRA           Lehen ere ez zenuen zuk gure usorik edukiko.
- XOLUERDI           Eduki... eduki...
- KAXIMIRA           Eduki, bai, eduki.

- XOLUERDI            Etorri zen eta, han egon zen, niri nahikoa kalte eginik.
- KAXIMIRA            Ez zenuen asmo horretan gorde.
- XOLUERDI            Nire bizkar han mantendu zen. Lana nahikoa izan nuen hura mantentzen. A zer gosea ekarri zuen!
- KAXIMIRA            Noski. Zure etxean mantenua gurean ez bezalakoa izango da-eta.
- XOLUERDI            Usoentzat bai. Geuroni goseak egongo bagara ere, gure usoentzat plazan agertzen diren jakirik ederrenak.
- KAXIMIRA            Gezur-zulo!
- XOLUERDI            Hamaika mokadu goxo janda eraman zenidaten beste uso hura. Guziak ezagun zituen!
- KAXIMIRA            Zaude isilik, ahozabal hori.
- XOLUERDI            Gainera, mantentzea asko ez zela, egunero usaindun urarekin garbitu, atxaparrak ere arrautza gorringoarekin dizdiz egiten zutela jarri, eta gainera... moko... (*Batixtak moko entzutean mailuarekin soinu handia aterako du, Kaximirak entzun ez dezan, Xoluerdi pixka batean isilduko da, eta gero hasiko da berriz*) Esan bezala, gainera... moko... (*Batixtak berriz ere soinua ateratzen du*) Aizak, hi: *Aiuntamentuan* gaudela uste al duk?
- BATIXTA            Zer esaten duan ez al haiz konturatzen? (*Kaximirari begialdiak boteaz*)
- XOLUERDI            Zer esan diat bada?... *moko...*
- BATIXTA            Bai bada, uste ez duala *moko...* (*Ahoa eskuarekin gorde, eta soinua ateratzen du Batixtak*)
- XOLUERDI            Esan nahi nian moko guzia *kol-krean*-ekin igurzten niola. Zer dik bada *moko* esateak!
- KAXIMIRA            Begira, begira; nahikoa moko entzun dugu, eta ez naiz ni horretara etorri.
- XOLUERDI            Ez; zu etorri zara ea nik, guri-guri eginda, beste usoren bat ematen ote dizudan. Horrela, nik mantenduta, zure amari dituen usoak merke aterako litzaizkioke.

- KAXIMIRA Ez dituenak merkeago.
- XOLUERDI Zer uste duzu, zuen usoentzat ostatua jarri dudala nik?
- KAXIMIRA Ez niri berriketekin etorri. Atzo goiza ezkerro ez da azaldu, eta ederrenetako bat da.
- XOLUERDI Ederra da, bai, niri kontu horiekin etortzea.
- KAXIMIRA Alferrik zabilta; ez naiz ni horrela geldituko.
- XOLUERDI Niregatik geldi zaitez nahi duzun bezala.
- KAXIMIRA Eta onean nahi ez baduzu, aitortu beharko duzu alkatearen aurrean.
- XOLUERDI Alkatearen aurrean? Ezta atzean ere.
- KAXIMIRA Ez da aski zuk nahi ez izatea.
- XOLUERDI Emakumea, ia zoratu nauzu zure usoarekin. Utz nazazu bakean.
- KAXIMIRA. Eta bereak handiagoak. Hauxe da jarri digun festa.
- BATIXTA (*Abestuaz eta lanean jarraituaz*) Festarik behar bada - bego Donostia...
- XOLUERDI Zer uste duzu, zuen usoei kontu hartzeko nagoela ni?
- KAXIMIRA Kontu hartzeko, ez; baina ahal duzun guzian harrapatzeko bai.
- XOLUERDI Nor naizela uste duzu zuk?
- KAXIMIRA Zu? Alproja lotsagabe bat.
- BATIXTA (*Lanean, abestuaz*) Betikoa du fama - ondo merezia.
- XOLUERDI Ez dizut ostiko bat ematen, zapaten muturrak ez zikintzeagatik.
- KAXIMIRA Zuk, niri? Ja, jai! Ez duzu gutxi uste. Horretarakoxe dago nire amaren alaba. Zer uste duzu zuk, arlote, makarroxo, ezkailu horrek?

- XOLUERDI           Zaude isilik.
- KAXIMIRA           Zuregatik? Alajaina! Ez ditugu aditzeko guziak aditu. Zuk isildu behar duzu, zuk, petral, likiskeria, inguma horrek. Honelakorik ez da inon ikusi eta entzun ere.
- BATIXTA            (*Lanean, abestuaz*) Bestetan ez bezala - hemen gazteria...
- XOLUERDI           Entzun dituzu bada, eta utz nazazu bakean.
- KAXIMIRA           Nondik atera da honelako krabarroka hau, nondik?
- BATIXTA            (*Lanean, abestuaz*) Amaren sabeletik - dator ikasia.
- XOLUERDI           Ez dizut hitzik ere gehiago esango, alferrik da-eta.
- KAXIMIRA           Alkatearen aurrean esango dizkidazu, alkatearen aurrean. Ikusiko dugu hemen bezain fanfarroi han hitz egiten duzun. (*Atzeko atera joaten da, eta Xoluerdik jarraitzen dio; baina Kaximira bihurtzen da, eta Xoluerdik itzuri egiten du*) Alferrik ibiliko zara, ez zaitut utziko gure usoa bihurtu arte. (*Joaten da*)

### III

#### BATIXTA eta XOLUERDI

- XOLUERDI           (*Ate aldera joanaz*) Azkenean ere joan haiz, berritsu, hitz-jario. (*Batixtari*) Ama *moko* bada, alaba *moko* t'erdi baduk gutxienaz. Oso amorrarazi nauen arte ez duk gelditu. Ama-alaba horiek arrainak izan balira, amuarrainak izango zituan.
- BATIXTA            Herorrek ere gaizki egin duk. Emakume bati esango diok bada: zapaten muturrak ez zikintzeagatik...
- XOLUERDI           Besterenak ditiat-eta.
- BATIXTA            Izan ere. Ez ninduan konturatzen...
- XOLUERDI           Banoak, banoak, lan pixka bat egiten ote dudan. (*Joaten da atzetik*)
- BATIXTA            Hoa, bai, hoa. Hik egiten dituan oinetakoen zain baleude Donostian, ez liketek mauka txarra izango alpraketa-egileek. Horren oinetakoak eta nire potoak, guziak poto.

IV

BATIXTA eta JUXTO

- BATIXTA (Lanean, abestuaz) Bestetan ez bezala - hemen gazteria - amaren sabeletik - dator ikasia. Hori da: ikasia. Nik eltze-tapak, txantxilak eta antoxinak egiten bezala. Goizean goizetik ez dut gero lan gutxi egin. (Mailuarekin danbateko gogorrek emanaz)
- JUXTO. (Azaltzen da Juxto eta atetik oihu egiten du) Herri! Horrenbeste danbatekorekin izerdituko haiz goizetik.
- BATIXTA Arratsaldeko ordainak dituk hauek.
- JUXTO. (Aurreratuaz) A! Beraz arratsaldean...
- BATIXTA (Abestuaz) Festarik behar bada - bego Donostia...
- JUXTO Ederki, ederki!
- BATIXTA Zer dugu? Bagabiltza?
- JUXTO Bai, mutil. Arrandegian izan nauk, eta erosi ditiat sei kraba, baina nolakoak berak...!
- BATIXTA Bai, e?
- JUXTO Honelakoak. (Behatz-punta bilduak ahora eramanez)
- BATIXTA Arrayia, arrayia!
- JUXTO Arrayia, ez: arraina, arraina.
- BATIXTA Bai, bai. (Pottoa indartsu joaz)
- JUXTO Baina, zergatik jotzen duk hori? Horrek ez dik zerikusirik.
- BATIXTA Hala duk. Eta, non dituk bada krabak?
- JUXTO Arrandegian. Axentxi Trinpollas-i utzi zizkioat pagatuta, gero neskatxaren bat bila bidaliko dudala esanez.
- BATIXTA Beraz, pagatuta, e?

- JUXTO                    Bai; ekarri besterik ez dela. Ikusiko bahu zer mokadu goxoa...!
- BATIXTA                A! (*Pottoa indarrez joaz*)
- JUXTO                    Baina, etzakela horrengatik pottoa jo!
- BATIXTA                Gaurko nire arratsaldeko gutizia horiexek zituan: krabak...
- JUXTO                    Krabak beraz, e? Nik jango ditiat bada.
- BATIXTA                Bai: krabak eta usoa zituan nire gutizia.
- JUXTO                    Usoa ere bai? Mutil, usoak airean ibiltzen dituk.
- BATIXTA                Ganbara-zuloan ez daudenean, bai.
- JUXTO                    Hara, hara: hik ehizen bat begiz joa daukak.
- BATIXTA                Nik jo? Mutil, nik ez diat jotzen pottoak besterik.
- JUXTO                    Ez zekiat ba, ez zekiat ba...
- BATIXTA                Zer jakin behar duk, ezer ez bada?
- JUXTO                    Orduan banoak, lan pixka bat egiten ote dudan.
- BATIXTA                Ez al haiz oraindik aberastu?
- JUXTO                    Hi bezala. Bien artean zerbait izango diagu.
- BATIXTA                Bai: sei kraba, eta ederrak gero.
- JUXTO                    Niretzat ordea. (*Atera joan eta handik barre eta iseka eginaz*)  
Batixta! Niretzat! (*Joaten da*)
- BATIXTA                Hiretzat? Ez ote zaizkik kontrako eztarrira joango? Eztarri honetara? Ikusiko diagu.

V

BATIXTA (bakarrik)

BATIXTA                      Usoak goian daude, krabak berriz behean. Behetik hasi behar dugu bada. Ez diote gaur Batixtari eztarririk urratuko. (*Oldoztuaz*) Bai; horixe egingo dut. Emakumeren bat balego leihoan... (*Atzetik begira*) A! Hara *Anttoni Karranpa*. Horrixe deituko diot; eta horrexek inork baino hobeto lan hau egingo dit. (*Atzetik deituaz*) Anttoni! Anttoni!... Zera. Adi ezazu. Zoaz arrandegira, eta *Axentxi Trinpollas*-i esan iezaiozu, Juxtok erosi eta pagatuta utzi dituen krabak emateko... E?... Bai, Juxtok. Hemen dago orain eta... (*Barrura begira Juxtorekin hizketan ari balitz bezala; eta gero kanpora*) Berak agindu dizula esan iezaiozu. Bai. Eta berehala ekar itzazu hona. Ateetan itxoingo dizut. Bai, berehala, bai. (*Martzelo jauna atzean*)

## VI

### BATIXTA eta MARTZELO JAUNA

Martzelo agertzen da ate-aurrean eta garondoan Batixta esku-makilarekin joaz.

MARTZELO                      E, e! Neskaxa gazteekin txeletaka, e?

BATIXTA                      Bai, zera; lan-kontu ari ginen. Lana besterik ez darabilkigu guk. Guztiak berorri bezala ezin bizi. (Garai ederrean etorri haiz oraintxe).

MARTZELO                      Ai, Batixta, Batixta! Paperak egiten dituzu zuk.

BATIXTA                      Paperak? Ez jauna, ez: marmitak, txantxilak, eltze-tapak eta antoxinak. Horiekin badaukat lana nahikoa, eta ez zait gelditzen paperak egiteko betarik.

MARTZELO                      Bai, ordea, *kaxuela xaltxentzat*.

BATIXTA                      Horiek ez ditugu egiten, garbitu bakarrik. (Eta hau hemen dagoela, nola gorde behar ditut krabak?).

MARTZELO                      Gaur arratsalderako ere zerbait asmatua edukiko duzu honezkero.

BATIXTA                      Bai zera. (Nahiago nuke krabak nola gorde asmatuko banu).

MARTZELO                      Ez dakit bada; izango dira gaur arratsalderako krabaren batzuk edo...

- BATIXTA                    Krabak? Xoluerdiren lantokira eramango ditut.
- MARTZELO                Nola?
- BATIXTA                    Ez, ez; eltze-tapa batzuk Xoluerdiri eraman behar dizkiodala. (Hantxe, ederki. Hori egingo dut).
- MARTZELO                Izango dituzu, bai, krabaren batzuk, edo usoren bat...
- BATIXTA                    Usoa, gero.
- MARTZELO                Nola, gero?
- BATIXTA                    Bai, esan nahi dut, orain ez daudela guretzat. Hegan ibiltzen diren jaki goxo horiek berorientzat izaten dira; aberatsentzat. (Ageri ote da?). (*Atzetik begiratuaz*)
- MARTZELO                Ai, Batixta, aspaldi utzi nituen jaki goxo horiek...
- BATIXTA                    Nik, berriz, jaio baino ere lehenagotik. (Xoluerdiren lantokian ederki gordeko ditut).
- MARTZELO                Lau urte badira sendakinak eragotzi zidala.
- BATIXTA                    A zer bihotz gogorra zuen!
- MARTZELO                Bi urte egon naiz, bi urte, esne hutsarekin.
- BATIXTA                    Esne hutsarekin? Horrela badoa, berori gazta bihurtuko da. (*Atzetik begiratuaz*) (Oraindik ere ez dator).
- MARTZELO                Orain hasi naiz arrain pittin bat jaten.
- BATIXTA                    Pittin bat besterik ez? Orduan berori ni baino arloteagoa da. (*Atzetik berriro begiratuaz*) (A! Hemen dator Anttoni Karranpa, eta berarekin dakartza krabak! Noan bere bila). Pixka bat itxoingo dit, e? Hor, aldamenean, baditut txantxila eta potixa batzuk antolatu beharrak eta...
- MARTZELO                Bai, bai, zoaz.
- BATIXTA                    (*Atetik kanpora keinu batzuk egin, eta gero Martzelori*) Berehala etorriko naiz.
- MARTZELO                Zoaz, zoaz; begiratuko diot nik bitartean zure lantokiari.

BATIXTA Bai, bai; eskerrik asko, (*Lasterka joaten da*)

## VII

### MARTZELO bakarrik

Bere tokitik altxa eta lanerako mahaira alderatuaz

MARTZELO Agindu diodanez gero, agindu bezala egin beharko dut. Lantokiari begiratu; edo garbiago esanaz, lantokiko gauzei begiraldi bat eman. (*Mailua eskuan hartuaz*) Ja, ja! Hemen aritzen da Batixta egun guztian, danba! danba! (*Mailuarekin potto bat joaz*) Zer ez nuke nik emango horren sasoia izateagatik! Nahi duena jan, edo ahal duena, baina, nolana ere, jan behintzat; lanerako gupidarik gabe, ari egun guztian; eta, gauean, lo lasai, Nork beste horrenbeste egin lezakeen! Nik, nire diru guziekin ezin dut behintzat. Horra nola gertatzen den azkenerako, ni diruduna eta hori diru gabea izan arren, hori ni baino aberatsagoa dela. Ni baino hobetoago bizi da behintzat. (*Makurtuaz eta zerbait lurrean ikusi nahian*) Zer ote dira hemen dauzkan txirri-mirri hauek?

## VIII

### MARTZELO eta BATIXTA

BATIXTA (*Ateetan azalduaz*) Ohitu bezala, Xoluerdi orain ere lantokitik alde egina. Baso erdiren bat huster. Han utzi ditut krabak, txoko batean gorde-gorde eginda. (*Sartuaz*) Oi! Zer egin ote du Martzelo jaunak? Galdu egin ote da? (*Begiratzen du alde guzietara. Azkenean ikusten du*) Zer dabil hor? zilarrezko zerbait bilatzen ote duen?

MARTZELO Ez; zerbait jaki gordeta ote zeneukan begiratzen nuen. Badakizue zuek txokoetan gordetzen.

BATIXTA Hemen ez; Xoluerdiren lantokian gordetzen ditugu orain.

MARTZELO A! Banekien nik zerbait!

BATIXTA (Orain Mokoren usoa... Badakit Xoluerdik ganbaran gordea edukiko duela. Bere arrebari eskatuko diot. Jaxinta Mokoren

alaba izan dela, eta anaiak emateko agindu duela. -Emateko horretan xamurra izanda...- Baina, hala esango diot).

- MARTZELO Ai, Batixta, Batixta, zer lasai bizi zaren!
- BATIXTA Ez daki ondo zer buruhausteak darabiltzadan orain bertan ere. (Ematen badit usoa, ezin eramango dut ordea Xoluerdiren lantokira. Nora, bada?).
- MARTZELO Zure osasuna izanez gero, buruhauste horiek erraz eraman litezkeenak dira.
- BATIXTA Berorrek eramanari besterik ez dio begiratzen, Niri, ekartzeak lanak ematen dizkit, ekartzeak. (Hona ekarriko dut; ez du honek ezer ere igarriko eta).
- MARTZELO Dela eraman, dela ekarri, zure azkartasunarekin erraz egingo duzu.
- BATIXTA Hala uste al du?
- MARTZELO Bai, bada.
- BATIXTA Saiatuko naiz bada. Beste pixka bat itxoingo du, e?
- MARTZELO Berriz?
- BATIXTA Bai, berehala hemen naiz. (*Joaten da*)

## IX

### MARTZELO bakarrik

- MARTZELO Gaur, joan-etorri asko darabiltza Batixtak. Zer ote dakar? Izango du zerbait. Eta guzia tripa-festa izango da. Gaur arratsalderako zerbait antolatzen ariko dela iruditzen zait. Bai, bai. Hori da bizitzea, hori. Inork ez du jakiten osasunak ematen dituen alaitasunak zer diren, osasuna bera galdu arte. Niri, behinik behin, horrela gertatu zait. Ez gaude berdinek Batixta eta ni. Ez, noski. Ni hemendik horra joateko, beldurraz bezala nago; eta hori, berriz, orain bertan, onenean, ganbararen batera igota ibiliko da, hegoak berekin balitu bezala; bai, hegoak berekin balitu bezala. Ez gara guztiak ahalmen berekoak. Ni gizon hauetaz irrikiturik bizi

naiz, irrikiturik. Gu, arrastaka bezala gabiltza; eta hauek, berriz, hegoak berekin balituzte bezala.

X

MARTZELO eta BATIXTA. Berehala JUXTO eta ANTTONI.

Geroxeago KAXIMIRA

- BATIXTA (Uso bat galtzarbean ezin gorde duela sartzen da) (Hemen duk!)
- MARTZELO Orain nengoen neure artean, zerorrekin hegoak bazenitu bezala zabiltzala.
- BATIXTA Bai, jauna; hegoak eta gainerakoa ere bai. (Non gordeko ote dut?).
- MARTZELO Gizonaren bikaintasuna.
- ANTTONI (Anttoni eta Juxto zalaparta bizian sartzen dira atzetik) Ez, ez, ez, ez; ederrak aditu behar ditu. Zer uste du katuarrain horrek? Anttoni Karranpa saltsa horietan sartzeko dagoela? Gezurretan etorrita, gezurretan, gezurretan... Ez, ez, ez, ez.
- BATIXTA (Juxto! Galdua nauk!)
- ANTTONI Zuk agindu zeniola esan dit; eta, gainera, zu hemen zeundela. Eta zu hemendik ateratzen neronek lehenago leihotik ikusia. Eta, horrela, gezurretan etorri? Ez, ez, ez, ez.
- BATIXTA (Zer egin behar dut nik honekin!)
- ANTTONI Krabak ekarri dizkiot, bai, egia da; baina bai agudo zuregana joan ere egia ote den jakitera. Zer uste du tripa ustel, galtzajario horrek, Anttoni Karranpa bera bezalako lapurreta-egilea dela? Ez, ez, ez, ez. Gaur harrapatzen badut, txilborra kenduko diot. (Batixta ikusiaz) A! Hara non dagoen bera.
- MARTZELO Zer gertatzen da hemen?
- JUXTO (Anttoni ondotik duela Batixtarengana joanaz). Aizak, hi: non dituk nire krabak?

ANTTONI            Hor dauzka; bai, bai, bai, bai. Ezin gorderik dabil; begira, begira.

JUXTO              Ekar itzak kraba horiek; agudo gero.

BATIXTA            Ez dituk krabak; beste gauza bat zeukaat hemen.

ANTTONI            Gezurra, gezurra; neronek ekarriak hortxe ditu.

BATIXTA            Ezetz; ez daudela hemen.

JUXTO              Emango al dizkidak? Bestela, ez egitekoren bat egingo diat!

BATIXTA            Ez direla krabak.

ANTTONI            Bai, bai, bai. Gezurra dio izokin horrek.

JUXTO              Erakuts itzak.

ANTTONI            Erakutsi beharko.

KAXIMIRA          (*Atzetik sartuaz*) Ez al dago hemen lehengo krabarroka hura?

MARTZELO          Krabak al dituzu zuk ere?

BATIXTA            Ez direla.

ANTTONI            Badirela.

JUXTO              Erakuts itzak.

ANTTONI            Erakutsi...

BATIXTA            (*Usoa erakutsiaz*) Horra bada.

JUXTO eta ANTTONI    Oi! Usoa!

MARTZELO          Usoa!

KAXIMIRA          Nirea!

BATIXTA            E! (Nondik sortu da hau?).

KAXIMIRA          Gure usoa da hori. Ongi ezagutzen dut.

- BATIXTA (Isilaldi txiki baten ondoren) Halaxe da. Xoluerdik ukatu egin dizu, baina nik ezagutu dut berehala, egia zurea dela.
- KAXIMIRA Bai, noski.
- BATIXTA Eta, hala; joan naiz beren etxera, eta nahi badute, eta nahi ez badute, eman behar izan didate; eta hona non daukazun: tori, zurea da. (*Kaximirari usoa ematen dio, eta honek musuka darabil*)
- KAXIMIRA Gure uso moñoñoa! (*Batixtari*) Zu zara gizona, zu.
- BATIXTA Bai, noski. (Hau bai dela pipen txortena jotzea). Eta honelako gauzak egiten dakien gizon bati, hemen entzun diren zitalkeriak esaten al zaizkio?
- ANTTONI Nik ez dizut zuri aitatu ez usorik eta ez karramarrorik. Ni krabengatik etorri naiz. Zuk esan didazu Juxto hemen zegoela; eta hori gezurra da, gezurra eta gezurra.
- BATIXTA Nik ez dizut horrelakorik esan. Nik esan dut Xoluerdi zegoela hemen, eta hementxe zegoen; eta bestela, esan dezala Kaximirak, egia esan nahi badu, Xoluerdi hemen zegoen edo ez.
- KAXIMIRA Hori, bai; hemen zegoen. Neronek, neure begiekin, ikusi dut.
- ANTTONI Niri, ordea, Juxto zegoela esan dit.
- KAXIMIRA Xoluerdi hementxe zegoen bada; eta ez ni gezurtizat atera, zu ez bezalakoa naiz ni egia esaten eta.
- ANTTONI Berriketari behintzat bai. Ama-alabak ere mingain ederrekoak zarete. Zuen *mokoa* nolakoa den guztiek dakigu.
- KAXIMIRA Mokoa izango dugu, baina, *karranparik* ez. Ezta zuek bezala zokoetan ezin gorde diren zikinkeria nazkagarrikerik ere.
- ANTTONI Zuek izango dituzue, zuek.
- KAXIMIRA Zuek.
- ANTTONI Zuek. (*Garrasika elkarri heltzera bezala doaz. Besteek zabaltzen dituzte*)
- MARTZELO Zaudete isilik.

KAXIMIRA            Katuarrain horri begiratu...

ANTTONI            Masopal ustel horrenak handiagoak. (*Berriro elkarri heltzera bezala, biak batean garrasika hitz eginaz*)

ANTTONI

KAXIMIRA

Hobe zenuke zure osaba begi-  
okerraren makarrak kendu, eta  
ez hemen zikinkeriarik aitatu.  
Utikan, moko luze alaena!

Zuek bezalako urde nazka-  
garriak garela uste al duzu?  
Utikan lotsagabea ez beste-  
rena!

*(Guztien artean zabaldu eta isilarazten dituzte)*

JUXTO            Isilik egongo ahal zarete, berritsu horiek!

MARTZELO        Ixo!

JUXTO            Horretara etorri garela uste al duzue?

MARTZELO        Hauek iturriak! (*Isilaldi labur bat*)

JUXTO            Hemen jakin behar duguna da nire krabak non diren.

BATIXTA           Non izango dituk? Xoluerdiren lantokian. Haren egitekoak  
dituk guziak. Hark, hire izenean, agindu zidak. Hari eraman  
zizkioat.

JUXTO            Xoluerdik al ditu?

BATIXTA           Bai, bada.

JUXTO            Harrapatzen dudan toki berean zanpatuko diat, xehatuko  
diat, hauts egingo diat.

## XI

### LEHENGOAK eta XOLUERDI

XOLUERDI        (*Krabak eskuan dituela abestiaz sartzen da*) Txintata txinta  
txinta, txintata txinta txin (*Juxtori bere aurrean jarriaz*) Juxto!  
Krabak! Niretzat, niretzat. Nik mauka-mauka jateko.  
(*Batixtari*) Lantokiko txoko batean gordeta aurkitu ditiat.

- JUXTO                   Ekar itzak hona kraba horiek, nireak dituk-eta. (*Gogorrean kentzen dizkio*)
- XOLUERDI               E? Nola?
- JUXTO                   Geldirik ez bahago, sudurra xehatuko diat, ezkailu, kirten horri.
- XOLUERDI               Baina, nola izan litezke zureak, nik bilatuta?
- JUXTO                   Batixtak esango dik.
- KAXIMIRA               (*Xoluerdiri usoa erakutsiaz*) Zu, zu... ez zenuen zuk gure usorik gorde, e?
- XOLUERDI               Baina, nondik duzu uso hori?
- KAXIMIRA               Batixtak esango dizu.
- XOLUERDI               (*Batixtari*) Aizak, hi: baina zer gertatu da hemen?
- BATIXTA                 Hemen? Ezer ez, eta festa.

ZAPIA JAISTEN DA